

**SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAN HONDAKINEN GAIKAKO BILKETATIK
DATORREN PAPER-KARTOIAREN SALMENTA-KONTRATUA ESLEITZEKO
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN ORRIA**

KONTRATUAREN EZAUGARRIEN KOADROA

KONTRATUAREN XEDEA/OBJETO DEL CONTRATO

KODEA/Codificación

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAK EZARRIAK DITUEN HIRI-HONDAKIN ETA ASIMILAGARRIETARAKO GAIKAKO BILKETATIK DATORREN PAPER-KARTOIA SALTZEKO KONTRATUA	
---	--

KONTRATUAREN GUTXI GORABEHERAKO BALIOA/VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

Zifratan/en cifra	Letratan/en letra
7.200.000 €	Zazpi milioi eta berrehun mila euro

BURUTZE EPEA/PLAZO DEL CONTRATO

LAU URTE GEHI LUZAPENAREN ONDORIOZ BESTE BI (4 URTE GEHI 2 URTE IZAN DAITEZKEEN LUZAPENENGATIK)	
--	--

BERMEAK/GARANTÍAS

Behin Behinekoa/ Provisional	Behin Betikoa/ Definitiva
Ez da zehazten.	500.000 €

ENKANTEKO PUBLIZITATEKO GEHIENEZKO GASTUEN ZENBATEKOA/IMPORTE MAXIMO DE LOS GASTOS DE PUBLICIDAD DE LA LICITACIÓN

PUBLIZITATEARENGATIK GEHIENEZ 2.000 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA.

OINARRIZKO PROPOSAMENA ETA HAUTABIDEAK/PROPUESTA BASE Y ALTERNATIVAS

Onarpena/Admisión	Betebeharrak, modalitateak eta aspektuak/Requisitos, modalidades y aspectos
EZ	

ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK/CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN

Irizpideak/Criterio		Neurritasun/Ponderación
1.-	Proposamen ekonomikoa	80 puntura arte
2.-	Gutxieneko prezio bermatua	10 puntura arte
3.-	Instalazioen kokapena	10 puntura arte

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA/ SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL

GUTXIENEZ MILIOI BAT (1.000.000) EURO

San Markoko Mankomunitatearen Batzarrakkoaren(e)an egindako saioaren erabakiz onartua.

DONOSTIAN,koaren(e)an

MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA,

Izp./Fdo.: Denis Itxaso González

1.- KONTRATUAREN XEDEA,

Orri honen xedea San Markoko Mankomunitateak ezarriak dituen hiri-hondakin eta asimilagarrietarako gaikako bilketetatik datorren paper-kartoiaren salmenta-kontratua arautzeko baldintzak zehaztea da.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

1.- Kontratuak hasieran lau (4) urte iraungo ditu.

2.- Epea esleipendunak zerbitzua eskaintzen hasten duen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. 2015eko urriaren 1ean ekitea aurrez ikusi da.

3.- Kontratua berariaz urtero luza daiteke gehienez sei (6) urte arte, Mankomunitateak edo esleipendunak indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago salatzen ez badute.

3.- LIZITAZIOAREN PREZIOA.

Arestian aipatutako gaikako bilketetatik ateratzen den paper-kartoa erosteko, eskaintzaileek “entregatutako tonako eurotan” eskaintzarik hoberena aurkeztu beharko dute. Hori materiala saltzeagatik San Markoko Mankomunitateak jaso behar duen prezioa izango da. Eskaintzan ez da balio erantsiaren gaineko zerga sartuko.

Prezioa eta aldaketa ASPAPEL Espainian berreskuratutako paperaren prezioei buruzko estatistikaren hileko prezioari erreparatu ostean zehaztuko dira.

Eskaintzaileek prezio bat eskaini beharko dute herri-bidean kokatuak dauden edukiontzien bilketa-zerbitzutik datorren materialerako, baita ikastetxeetan eta administrazioan jasotzen denerako ere (**1.01 kalitatea, "sailkatu gabeko paper eta kartoi nahastua"**) eta beste bat merkataritza, industria-poligono, zabortegei eta garbiguneetan bildutako kartoi eta kartoi-bilgarrietarako (**1.04 kalitatea, "supermerkatuetako kartoa"**).

4.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dago prezioa berraztertzerik.

5.- ORDAINTZEKO MODUA.

Kontratatik San Markoko Mankomunitateari kontratuaren prezioa hileroko ordainduko dio, hilari dagokion kitapena jakinarazi ostean.

Administrazioak jaso behar duen zenbatekoa zehazteko, une bakoitzean kontratatik eskaintako prezio unitarioak eta sortutako hilabeteen kontratataren instalazioetan entregatu diren materialaren kopuruak biderkatuko dira.

Ezegokiengatik, hezetasunarengatik edo zerikusia duten beste alderdi batzuegatik deskontuak ez dira onartuko. Eskaintzaileek bilketa-mota bakoitzetik entregatzen diren batez besteko kalitateen esperientzia eta ezagutzetan oinarrituta eta beste faktore batzuk (zonako plubiometria, etab.) kontuan hartuta, kasuistika horiei erreparatuko diete eta lizitazio-prezioan integratuko dituzte.

Materiala lagatzeagatik fakturak **hurrengo hilabeteko lehenengo hamabostaldian** ordainduko dira. Balio erantsiaren gaineko zergarako zerga-araudiak subjektu pasiboaren inbertsioa xedatzen badu, esleipendunaren erantzukizuna izango da autofaktura ordainketa-baldintzarekin betetzeko nahikoa aurrerapenez igortzea.

Aipatu zenbatekoak epean ordaintzen ez badira, SPKLTBak xedatutako moduan, kontratatik Mankomunitatearen alde berandutze-interesak ordaindu beharko ditu eta, era berean, zigorrak jarri ahal izango zaizkio eta kontratua ebatz daiteke.

6.- KONTRATUAREN GUTXI BEHERAKO BALIOA.

3/2011 Errege Dekretu Legegileak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak (aurrerantzean SPKLTB), 88. artikuluan aurrez ikusten duenerako, kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 7.200.000 €koa da, BEZ kanpo.

Aurrekontua SPKLTBk 88.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat kalkulatu da, hau da, aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen egiazko balioari erreparatu zaio, kontratuaren iraupen osoa (lau urte gehi luzapenen ondorioz izan daitezkeen beste bi) kontuan hartuta.

7. BERMEAK

Hartutako eginbeharrak betetzen direla bermatzeko, kontratuaren esleipendunak 500.000 euroko behin betiko bermea osatu beharko du.

Bermea osatzeko epea 10 lanegunekoa da, 21. klausulan aipatzen den eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 96. artikuluan xedatutako edozein bitarteko erabiliz osa daiteke. Osatu dela egiaztatzeko, bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabil daitezke. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Mankomunitateak ez du bere alde esleipenik egingo.

Abal-moduan aurkeztuz gero, Orri honetan I. Eranskin bezala sartutako eredura moldatu beharko da.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, bermearen epea amaitzen denean eta esleipendunak kontratuaren eginbehar guztiak betetzen dituenean.

8. ESLEIPEN-PROZEDURA

Esleipen-modua prozedura irekia izango da, beraz, interesdun orok proposamena aurkez dezake eta kontratuaren baldintzak negoziatzea baztertuko da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak (azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea) 157. artikuluan eta azaroaren 3ko 33/2003 Legeak, 8.1. eta 111. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

9. ESKAINTZAILEAK

Pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerrikoek, proposamena aurkez dezakete, betiere jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekuetan murgilduak ez badaude eta kaudimen ekonomiko nahiz finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

10. DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Enpresa-elkarteek ezingo dituzte banan-banako proposamenak aurkeztu eta hala eginez gero, ez dira onartuko ez banakoak, ezta elkartearenak ere.

2. Proposamenak 2 gutun-azaletan aurkeztuko dira eta ondoren zehazten diren dokumentuak izango dituzte:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA

a) Lehiakidearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkartzan jardunez gero, notarioaren ahalordea, gutun-azal honetan aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan erakunde honek askietsiko duena.

b) Lehiakidea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiakidearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Enpresaburuak Europako Elkarteko Estatu kideetakoak direnean, baina ez Espainiakoak, kokatuta dauden Estatu legeriaren arabera dagokion erregistroan duten inskribapena egiaztatu beharko dute. Bestela, zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, komunitateko xedapen aplikagarriekin bat.

Gainerako enpresaburu atzeritarrek jarduteko gaitasuna dagokion Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostenarekin egiaztatu beharko dute.

c) Kontratatzeko Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratuak 60. artikuluan zerrendatutako debekurik ez izatea adierazten duen aitortpen arduratsua. Berariaz aipatuko da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak dituela, indarreko xedapenei jarraiki, bi azken hauei buruz egiaztapen-ziurtagiriak aurkezten diren kasuetan izan ezik.

d) JEZn kontratuaren xedeari dagokion epigrafean (622- beste berreskuratze-produktu batzuen handizkako merkataritza) alta emana dagoela adierazten duen ziurtagiria. Horretarako alta aurkeztuko da ekitaldi honetakoa bada edo JEZren azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan aipatu zergan baja ez emanaren aitortpen arduratsua aurkeztuko da.

e) Eskaintzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren frogagiriak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratuak 75. artikuluko a) hizkian eta 77. artikuluko f) hizkian xedatutako bitartekoen bidez. Aipatutako bitartekoei dagokienez, kontratu zehatz honetarako enpresek hurrengo gutxieneko kaudimen-baldintzak bete beharko dituzte:

Kaudimen ekonomikoa egiaztatze honakoak aurkeztu beharko dira:

1. Finantza-erakundearen txostena, aipatu kontratua burutzeko eskaintzailearen finantza-gaitasuna berariaz baieztatzen duena, edo arrisku profesionalengatik lizitazio-prezio berdinean edo handiagoan kalte-ordainaren aseguru dagoela adierazten duen egiaztagiria.

2. Merkataritza-erregistroan edo antzekoan gordailatu ondoren, 2012., 2013. eta 2014. urteetako urteko kontu ikuskatuak. Eskaintzaileek funts propio positiboak izan beharko dituzte eta aipatu ekitaldietan urteko batez besteko fakturazioa 1.200.000 eurotik gorakoa izango da.

Kaudimen teknikoaren egiaztatzeko, enpresaburuak kontratua gauzatzera bideratuko dituen materialaren, instalazioen eta ekipu teknikoaren aitorpena egin beharko du. Halaber, gaikako bilketetatik etorrira, paper eta kartoiaren hondakinak kudeatzeko orduan azkeneko hiru urteetan izan duen urteko bolumena tonatan adieraziko du. Horietatik paper eta kartoiaren fabrikazioaren industriatik eratorritako hondakinak baztertuko dira. Era berean, kontratuaren xede den LER izeneko hondakin ez-arriskutsuen kudeatzailearen baimena aurkeztuko da.

Gutxieneko baldintza izango da batez beste azkeneko hiru urteetan 15.500 tonako bolumena edo hortik gorakoa kudeatzea eta gaur egun paper/kartoiaren bolumen hori kudeatzeko beharrezko instalazioak eta ekipu teknikoak izatea.

Azkenik, betetze onaren ziurtagiriaren bitartez gaikako bilketetatik datorren paper eta kartoiaren hondakinak erosteko **kontratu bat** egiaztatu beharko da, hori azkeneko bost urteen buruan gauzatu bada.

f) Enpresaburu batzuek Aldi Baterako Enpresaburuen Elkartearen osatzen badute, gaitasuna eta kaudimena metatu ahal izango dira, aurreko puntuetan xedatutakoarekin bat eta, era berean, esleipendunak izanez gero, legez ABEEren osatzeko konpromisoa hartuko dute. Halaber, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

g) Enpresa atzeritarren kasuan, Espainiako Auzitegi eta Epaitegietako eskumenak betetzeari dagokion aitorpena kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako; eskatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo zaio.

h) Prozeduraren ondorioz sortutako jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBk 151.4. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera eta horrek xedatutako ondorioetarako.

Aurreko a) eta b) hizkietan aipatutako gorabeherak Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Eskaintzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edo SPKLTBk 84. artikuluan xedatutakoarekin bat, sailkapen-ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiaztatu daitezke. Ziurtagiriarekin batera eskaintzailearen aitorpen arduratsua aurkeztu beharko da, ziurtagiriaren azaldutako egoerak aldaketarik ez dutela izan adieraziz.

Aurreko atalean aipatutako ziurtagiria elektronikoki luza daiteke.

Eskatutako dokumentazio guztiaren originalak eta kopiak aurkeztuko dira, behar bezala konpultsatuak edo Administrazioak ala notarioak egiaztatuak. Era berean, dokumentazioa fotokopia sinplean aurkez daiteke, baina kasu horretan, lehenengo sailkatuak fotokopia horiek egiazkoak direla egiaztatu beharko du eta, horretarako, originalak aurkeztu beharko ditu.

2. GUTUN-AZALA: BALIOZTAPEN AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK

Proposamenak zorrozki hurrengo eremua bete beharko du:

..... jaun/andreak, adin nagusikoak,n helbidea duenak eta
..... NAN zenbakiarekin,ren izenean eta horri ordezkatzuz (sozietatearen
helbidea:; IFK:) ondorengoa

A Z A L T Z E N D U:

- Lehenengoa.- San Markoko Mankomunitatean hondakinen gaikako bilketatik datorren paper-kartoiaren salmenta-kontratua esleitzeko lehiaketaren Administrazio Baldintzen eta Baldintza Teknikoen orriak ezagutzen ditu.
- Bigarrena.- Bere erantzukizunpean aitortzen du indarreko legeriak xedatutakoaren arabera enpresa eskaintzaileak Administrazioarekin kontratatzeke debekurik ez duela, Administrazio Baldintzen eta Baldintza Teknikoen Orrietan deskribatutako lanak gauzatzeko gaitasun juridikoaz eta bitarteko nahikoez hornituta dagoela eta kontratu honetarako eskatzen diren baldintza bereziak betetzen dituela.
- Hirugarrena.- Esleipenduna izanez gero, lanak bere eskaintzako baldintzekin bat eta onartutako Administrazio Baldintzen eta Baldintza Teknikoen Orrietan xedatutako baldintzei zorrozki erreparatuz egingo ditu.
- Laugarrena.- San Markoko Mankomunitateak gauzatzen dituen hiri-hondakin eta asimilagarrien gaikako bilketetik datorren paper-kartoiaren erosteko eskaintzarik onena aurkezten du, arestian aipatutako orrian azaldutako baldintzen arabera. Hala, prezioak hurrengoak izango dira, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo:

ASPAPPEL +/-..... EURO, “entregatutako tona **paper** bakoitzeko”

ASPAPPEL +/-..... EURO, “entregatutako tona **kartoi** bakoitzeko”

.... EUROko gutxieneko prezioa entregatutako tona **paper** bakoitzeko”

.... EUROko gutxieneko prezioa entregatutako tona **kartoi** bakoitzeko”

Deskargatze-instalazioen helbidea: _____

(data eta sinadura)

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Aipatu diren gutun-azalak San Markoko Mankomunitatearen Erregistroan (Donostiako Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakian) aurkeztu beharko dira bulego-ordutegiaren (8:00-14:00) barruan 25 egun naturalen buruan, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, postetxeko bidaltze-data justifikatu beharko du eta kontratazio-organoari iragarri beharko dio eskaera bidali duela, bai faxez, bai telegramaz, bai e-postaz egun horretan bertan. Bi baldintzak batera betetzen ez badira edo bidali izanaren jakinarazpena proposameneren harrera-eparearen ondoren jasoz gero, proposamena ez da onartuko. Hala eta guztiz ere, aipatu datatik hamar (10) egun natural igaro ondoren proposamenik jaso ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Gutun-azalak itxiak eta behar bezala sinatuak aurkeztuko dira. Gainera, enpresa eskaintzailearen izena eta honako inskribapena agertuko dira: **“Papera eta kartoia erosteko proposamena”**.

Horiez gain, gutun-azal bakoitzean edukia aipatuko da honako adierazpenen bidez:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA
2. PROPOSAMEN EKONOMIKOA, AUTOMATIKOKI BALIOZTA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

12. DOKUMENTUAK KALIFIKATU ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, Kontratazio Mahaiak garaiz eta legez jasotako dokumentazioa (1. gutun-azala) kalifikatuko du eta, horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorrak 81. artikuluan eta hurrengoetan aipatutako moduan jardungo du.

Xede horrez, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruz argibideak edo dokumentu osagarriak eska daitezke eta Araudiak 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Argibideak edo informazio osagarria eskatu nahi izanez gero, Mahaiak ahoz jakinaraziko die interesdunei eta, aldi berean, Mankomunitatearen iragarkien oholztan iragarriko da, baita kontratugilearen profilean ere. Modu berean jakinaraziko ditu

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak, kasu honetan, 3 lanegunetan eskaintzaileek aurkitutako akatsak konpondu edo zuzentzeko.

Kontratugilearen profilean adierazten diren datan eta orduan 2. gutun-azala irekitzeari ekingo zaio. Egintza publikoan irekiko dira San Markoko Mankomunitatearen bulegoetan.

Egintza hasteko, 1. gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioari dagokion egiaztapenaren emaitza azalduko da. Hori buruz azalpen egokiak eman ondoren, baztertuak izan ez diren eskaintzaileen 2. gutun-azalak irekiko dira eta eurek proposatutako eskaintza ekonomikoak irakurtzeari ekingo zaio.

Egintza publikoa amaitzen denean, Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipen-proposamena egingo dio Mankomunitateko organo eskudunari.

13. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia hurrengo kideek osatuko dute:

MAHAIBURUA: Mankomunitateko presidentea.

1. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko idazkaria.

2. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko kontu-hartzailea.

3. MAHAIKIDEA: Mankomunitateko teknikari bat.

4. MAHAIKIDEA: Zuzendari-kudeatzailea.

IDAZKARIA: Mankomunitateko administrari bat.

14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau prozedura irekiaren bitartez esleituko da.

Bakarrik balioztapen automatikorako hurrengo hiru irizpideak kontuan hartuko dira:

Irizpide objektiboak:

1. irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa. Gehienez 80 puntu emango dira.

2. irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren gutxieneko prezio bermatua. Gehienez 10 puntu emango dira.

3. irizpidea.- Bildutako materiala deskargatzeko instalazioen kokapena. Gehienez 10 puntu emango dira.

1. IRIZPIDEA Objektiboa.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa.

Ekonomiaren ikuspegitik proposamen abantailatsuenak balioetsiko dira. Proposamen ekonomikoak haztatzeko, paper eta kartoirako eskainitako prezioak kontuan hartuko dira honako formularen arabera:

$$\text{Prp} = (\text{paperaren prezioa}) * 0,60 + (\text{kartoiaren prezioa}) * 0,40$$

Prp: eskaintzailearen prezio haztatua.

Proposamen ekonomikorik altuenak 80 puntu lortuko ditu eta gainerako proposamenei ondorengo formula aplikatuko zaie:

Balioztapena: (Proposamen ekonomikoa / Proposamen ekonomikorik altuena) x 80

2. IRIZPIDEA Objektiboa.- Proposamen ekonomikoaren gutxieneko prezio bermatua.

Ekonomiaren ikuspegitik gutxienezko prezioari buruzko proposamen abantailatsuenak balioetsiko dira. Proposamen ekonomikoak haztatzeko, paper eta kartoirako eskainitako prezioak kontuan hartuko dira honako formularen arabera:

$$\text{Prp} = (\text{paperaren prezioa}) * 0,60 + (\text{kartoiaren prezioa}) * 0,40$$

Prp: eskaintzailearen prezio haztatua.

Proposamen ekonomikorik altuenak 10 puntu lortuko ditu eta gainerako proposamenei ondorengo formula aplikatuko zaie:

Balioztapena: (Proposamen ekonomikoa / Proposamen ekonomikorik altuena) x 10

3. IRIZPIDEA Objektiboa.- Hornidura hobetuko duten beste prestazio batzuk.

Gehienez **10 puntu** emango zaizkie paper-kartoiaren hondakinen ekoizpenari dagokionez grabitazio-ardatz hurbileneetan dauden instalazioei. Kasu honetan Donostiako udalerrria da hurbilena, bildutako materialaren % 65a baino gehiagorekin.

Atal honetan puntuak emateko, hurrengo moduan ekingo zaio:

Donostiako hirigunea (udaletxea, Ijentea kaleko 1. zenbakia) abiapuntutzat hartuta, errepideen sare nagusitik eskaintzaileak proposatutako instalazioetara joateko distantzia kilometroetan neurtuko da eta puntuak ondorengo moduan banatuko dira:

Distantziarik laburrenak 10 puntu lortuko ditu eta gainerako proposamenei ondorengo formula aplikatuko zaie:

Balioztapena: (Instalazioetara distantziarik laburrena / Instalazioetara distantzia) x 10

Eskaintzaileren batek egun Mankomunitatean ez badu instalaziorik, 0 puntu emango zaizkio, etorkizuneko instalazioen proiektu eta kokapen loteslea aurkezten dituenetan izan ezik. Kontratua iraungitzeko arrazoia izango da lotesle bezala aurkeztutako instalazioak ez errespetatzea.

15. ESKAINTZAK KALIFIKATU ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

Kontratazio Mahaiaren proposamenez, kontratazio-organoak beheranzko ordenan aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, orri honetan azaltzen diren esleipen-irizpideei jarraiki.

Ekonomikoki eskaintzarik abantailatsuen aurkeztu duen eskaintzaileari kontratazio-organoak 10 laneguneko epean, eskea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak eguneratuak dituela azaltzen duen dokumentazioa aurkez dezan eskatuko dio. Halaber, behin betiko bermea osatua duela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du.

Kontratazio-organoak kontratua dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 lanegunen buruan esleituko du.

16. KONTRATUAREN LEGEZTATZEA

Mankomunitateko organo eskudunak esleipena egin ondoren eta hori jakinarazi ostean, esleipendunak kontratua administrazio-dokumentuan legeztatu beharko du gehienez 15 laneguneko epean, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, aipatu dokumentua edozein erregistro publikora jotzeko nahikoa titulu izango da. Hala eta guztiz ere, kontratistak eska dezake kontratua eskritura publikoan jasotzea, bere gain hartuta dagozkion gastuak.

Kontratatari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik epe horren barruan kontratua ez badu legeztatu, San Markoko Mankomunitateak ebaztea eta behin betiko bermea konfiskatzea erabaki dezake.

Kontratua legeztatzeko egintza berean, hori sinatzearekin bat, esleipendunak Administrazio Baldintza Berezien Orria eta Baldintza Teknikoen Orria sinatuko ditu. Hala, idatziz jasoa geldituko da ezagutu dituela eta ados dagoela.

Edozein ordainketa izapidetzeko, nahitaezkoa da kontratua legeztatzea.

17-. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratatariak, besteak beste, ondorengo baldintzak bete beharko ditu. Ez baditu betetzen, kontratu hau ebatziko litzateke:

- Kontratua indarrean sartzen den unetik, ECOEMBALAJES ESPAÑA, S.A.k behar bezala onartu behar du esleipenduna, Euskal Autonomia Erkidegoak eta ECOEMBALAJES ESPAÑA, S.A.k sustatutako sistema integratuak sinatu duten hitzarmen esparruaren barruko baldintzen arabera.
- Kontratu hau kontratatariaren arrisku eta zorira gauzatuko da.
- Kontratatariak San Markoko Mankomunitatearen eremuan biltegia izango du eta saltzen den papera nahiz kartoia Orri teknikoan definitzen diren baldintzetan biltzeko modu egokian moldatua egongo da.
- Materialak, fakturatzeko oinarri izango direnak, Mankomunitateak onartutako baskulan pisatuko dira. Gainera, baskulak kalibratze ziurtatu eta legeztatua izango du. Mankomunitateak baskula alda dadin eskatzeko eskubidea du.
- Mankomunitateak eskatzen dizkion gaien berri emango du eta eskatzen zaionean bileretan parte hartu beharko du.
- Zerbitzua kontratuan, orrian eta legeria aplikagarrian xedatutako moduan eskainiko du.
- Berez zerbitzua eskainiko du eta ez die hirugarrenei laga edo transferituko Mankomunitateak onartu gabe. Gainera, honek bakarrik Tokiko Udaltzatzen Kontratazioari buruzko Araudiak 52. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako baldintzetan baimen dezake.
- Entregatutako paper eta kartoiaren material guztia birziklatzera, hau da, paper-orea lortu eta, ondoren, jatorrizko produktuak edo pareko beste zelulosazko produktu batzuk lortzeko lehengai bezala materiala aprobetxatu edo berrerabiltzera bideratu beharko du.

- Ondoren egiten diren manipulazio-lan guztietan zehar entregatutako materialak izan ditzakeen datuak zorrozki isilpean mantenduko ditu eta hala egiten dela ziurtatuko du. Ildo horri eutsiz, zuhurtasunez jardungo du, datuak babesteari buruzko legeriak xedatutakoaren babesean.
- Deskargatutako materialean ager daitezkeen objektu baliotsuak San Markoko Mankomunitateari jakinaraziko dizkio eta bere eskura jarriko ditu.
- Zerbitzua betetzeko langileei dagokienez, zerga-obligazioak, Gizarte Segurantzari buruzkoak eta aurreikuspen nahiz lanean segurtasunarekiko betebeharrak eguneratuak izango ditu. Betebehar horren barruan Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak eta prestazioak erabiltzeagatik sortutako tasen ordainketak sartuak egongo dira.
- Behar bezala eskaintzeko une oro zerbitzuaren esku langile guztiak jarriko ditu eta absentziak, bajak, etab. bete ere bai.
- Erantzukizun zibila milioi bat euroz (1.000.000 €) aseguratua izango du, lehiaketaren xede den jardueraren ondorioz hirugarren pertsoneri edo ondasunei sortutako kalteengatik kalte-ordainen arriskua eta asaldatutako ingurunearen konpontze- eta berreskuratze-kostuak estaltzeko. Polizak argi eta garbi zehaztu beharko du zenbateko hori kontratuaren xede diren instalazioetarako gordeko dela.

Lana eta lan-arriskuak prebenitzea

Kontratatistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta lanean segurtasun nahiz higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu. Ildo horri jarraiki, ez betetzeagatik Mankomunitateari erantzukizunez salbuetsiko zaio.

Baimenak lortzea

Erakunde kontratistari dagokio prestazioa emateko behar diren baimenak lortzea, ingurumenaren eremuan dauden horiek guztiak barne.

17.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

- Lehengai bezala erabiltzeko paper eta kartoiaren jabetza lortzea.
- Kontratua ohiz garatzeko Mankomunitatearen lankidetzaz izatea.

18.- KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUMENAK.

Mankomunitateari ondorengo eskumenak dagozkio: orri hau interpretatzea, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, ebazpena erabakitzea. Hori guztia Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak xedatutako mugen barruan eta horietan ezarritako baldintza eta ondorioen arabera egingo du.

19. –LEGE-ARAUBIDEA.

Kontratu hau kontratu pribatua izango da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuak (azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea) 4.1 p) eta 20. artikuluetan xedatutakoaren babesean.

Hala eta guztiz ere, kontratua prestatu eta esleitzeari buruzko ebazpenak lege-egintza bereizgarriak dira eta administrazioarekiko auzi-eskumenaren aurrean kontra egin daiteke.

Kontratua prestatu eta esleitzeko, hurrengoek arautuko dute:

.- Orri honetan dauden klausulek.

.- Herri-administrazioaren ondarea arautzen duen legeriak, 33/2003 Legeak, azaroaren 3koak, tokiko erakundeei aplikatu daitezkeen.

.- Tokiko erakundeen ondasunei buruzko legeria bereziak (Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua).

.- 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, aplikagarria zaionean.

Ondorio eta iraungitzeari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute.

Administrazioarekiko auzi-eskumena kontratua prestatzeko eta esleitzeko gaien inguruan aginpideduna da.

Eskumen zibila kontratuen ondorio, betetze eta iraungitzeari buruz aldean artean sortutako gatazkak ebazteko aginpideduna da.

Donostian, 2015eko maiatzean

I. ERANSKINA: BERMEAREN EREDUA

[...] erakundeak (*kreditu-erakundearen edo elkarrenganako bermedun sozietatearen izena*), [...] IFKrekin, [...] (*jakinarazpenetarako eta eskeetarako*) helbidea duenak, bere izenean ([...]) (*ahaldunaren izena eta abizenak*), dokumentu honen azpian adierazten den ahalorde askietsiaren arabera, egintza honetan behartzeko nahikoa gaitasunekin, hurrengoari BERMATZEN dio: ...ri (*bermatuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena*), ... IFKrekin, San Markoko Mankomunitatearen gaikako bilketatik datorren papera eta kartoiaren salmenta eta ondorengo kudeaketaren kontratuaren ondorioz sortutako betebeharez erantzuteko. Zenbatekoa guztira eurokoa (*hizkiz eta zenbakiz*) izango da.

Bermea ematen duen erakundeak bere erantzukizunpean aitortzen du 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duenak, 56.2. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituela. Berme hau obligaziodun nagusiarekiko solidarioki ematen da; berariaz uko egiten zaio eskusio-onurari eta San Markoko Mankomunitateak gauzatutako lehenengo eskean ordaintzeko konpromisoa hartzen da.

Berme hau San Markoko Mankomunitateak edo bere izenean horretarako gaituak kitatzea edo itzultzea baimendu arte indarrean egongo da.

Tokia eta data

Erakundearen izena

Ahaldunen sinadura

II. ERANSKINA.- ERREGISTROAN PROPOSAMENA ENTREGATZEKO EREDUA

..... jaun/andreak, NAN duenak, bere izenean edo
..... enpresaren izenean (IFZ:.....; helbidea:
.....) ondorengoa

AZALTZEN DU:

Egun honetakoak(*) izanik, 2 gutun-azal entregatzen dituela eta “SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETATIK DATORREN PAPER-KARTOIAREN SALMENTA-KONTRATUA ESLEITZEKO” lehiaketan parte hartu ahal izateko proposamena dela.

Donostian, 2015ekoaren(e)an.

Sin.:

(Aurkezlearen sinadura)

(*) *Erregistroko arduradunak betetzeke.*

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEA